# ZAINDU ITZAZU LAGUNAK

MUSIKA:
Urko Oskoz
LETRA:
Julio Soto
ABESLARIA:
Xabier Madariaga

**ZAINDU ITZAZU LAGUNAK**
**ZAINDU ZURE KUTTUNAK**
**MAITASUNA ESKAINTZEN**
**BAT ARI DA BAT ZAINTZEN**
**(BERRIZ)**

BATZUETAN ISPILU
EZ OTE DA LAGUNA?
IKUSI NAHI EZ DENA
ERAKUSTEN DIZUNA!

BESTEETAN BI BEGI
EZ OTE DA LAGUNA?
ISPILU IZATEKO
ZURI ESKATZEN DIZUNA!!

**ZAINDU ITZAZU LAGUNAK...**

BATZUETAN BI BESO
EZ OTE DA LAGUNA?
EKAITZA ETORTZEAN
BABES EMATEN DIZUNA!

BESTEETAN BI ESKU
EZ OTE DA LAGUNA?
BIDEAN ERORTZEAN
ZUREAK BEHAR DITUNA!

**ZAINDU ITZAZU LAGUNAK...**

IREKI BIHOTZAK...
JOLASTU NAHI AL DUZU NIREKIN?
JOLASTU AL NAITEKE ZUREKIN?
OSOAGOAK TA EDERRAGOAK
EZ AL GARA BIOK ELKARREKIN?
(BERRIZ)

**ZAINDU ITZAZU LAGUNAK...**